



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA  
ETXEBIZITZA SAILA  
Ingurumen Sailburuordetza  
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Viceconsejería de Medio Ambiente  
Dirección de Administración Ambiental

**EBAZPENA, 2018ko irailaren 17koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenaren dokumentua formulatzeko.**

### AURREKARIAK

2018ko apirilaren 23an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Antolamenduko atalak Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenaren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zuen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskaeran Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa jaso ziren.

2018ko ekainaren 18an, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen Dekretuak (urriaren 16ko 211/2012 Dekretua) 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zen. Administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei egin zien kontsulta ingurumen-organoak:

- EUSKO JAURLARITZAKO NATURA ONDARE ETA KLIMA ALDAKETAKO ZUZENDARITZA
- EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA
- EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA
- GOBERNUAREN LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENKO ETA EUOPAR POLITIKETAKO ZUZENDARITZA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO KULTURAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO NEKAZARITZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO AZPIEGITURAKO ETA LURRALDE GARAPENERERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- URAREN EUSKAL AGENTZIA
- KANTAUARIKO UR KONFEDERAZIOA
- EUSKAL HERRIKO ITSASERTZ MUGARTEA
- IHOBE
- ABANTO ZIERBENAKO UDALA
- ALONSOTEGIKO UDALA
- ARRANKUDIAGAKO UDALA
- ARRIGORRIAGAKO UDALA
- BARAKALDOKO UDALA
- BARRIKAKO UDALA
- BASAURIKO UDALA
- BERANGOKO UDALA
- BILBOKO UDALA
- DERIOKO UDALA
- ERANDIOKO UDALA
- ETXEBARRIKO UDALA
- GALDAKAOKO UDALA
- GETXOKO UDALA
- GORLIZKO UDALA
- LARRABETZUKO UDALA
- LEIOAKO UDALA



- LEMOIZKO UDALA
- LEZAMAKO UDALA
- LOIUKO UDALA
- MUSKIZKO UDALA
- ORTUPELLAKO UDALA
- PLENTZIAKO UDALA
- PORTUGALETEKO UDALA
- SANTURTZIKO UDALA
- SESTAOKO UDALA
- SONDIKAKO UDALA
- SOPELAKO UDALA
- UGAO-MIRABALLESEKO UDALA
- URDULIZKO UDALA
- TRAPAGARANGO UDALA
- ZAMUDIOKO UDALA
- ZARATAMOKO UDALA
- ZEBERIOKO UDALA
- ZIERBENAKO UDALA
- EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEA
- EGUZKI
- IRATZAR EKOLOGISTA ETA INTERNAZIONALISTA ELKARTEA

Bestalde, data horretan bertan, eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren -Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean- planaren zirriborroa, legeria sektorialak eskatutako dokumentuak eta hasierako dokumentu estrategikoa, planaren gainean interesa leukaketenak identifikatzeko.

Zegokion legealdian ezarritako epea amaituta, erantzuna jaso zen honako hauen aldetik: Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza zein Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia zein Ingurumen Zuzendaritza Nagusia, URA Uraren Euskal Agentzia, Portugaleteko Udala, Barakaldo Udala eta Bilboko Udala.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen irismen-dokumentua egiteko behar adina judizio-elementu bazeudela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua araber.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren araber, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzea helburu.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua araber, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera lege behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.



Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) letran jasotako planei lotuta, eta plan horien artean, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen du zer dokumentu erantsi behar zaizkion hasierako eskabide horri, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez dionetan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, bere I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasuneko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Hona arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostena aztertu da eta hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskadiko Ingurumena Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.**- Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenean ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua garatzea, ingurumenerako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

### 1.- Planaren xedea

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenean indarrean dagoena hobetzea du helburu, eta hura egokitzea aldaketa sozialetara, ekonomikoetara zein biztanleen ingurunea ulertzeko modura, bai eta haiek eremu funtzionalarekin eta aplikazioko araudi berriaren duten harremanera ere. Eremu funtzional jasangarria lortu nahi da, kohesionatua; baliabide naturalak babestu eta baliozkotu ez ezik, indartu, hobetu eta sendotzen dituen, beren arteko loturak eremu funtzionalaren lotura ekologikoa hobetu dezan.

Etxebizitza-behar eta -eskaintzaren zein jarduera ekonomikoen arteko oreka handiagoko hiri-eredua lortu nahi da, eta, horretarako, landa-inguruneari ez zaio kalterik eragin behar eta ez da lurzoru berririk kontsumitu behar, etxebizitzak birgaitu eta beren tipologia egokitu baizik, gune libreterako eta berdegunetarako sarbidea sortuz eta garraio kolektiboko sareen bilbe egokia garatuz, haren loturari laguntzeko.

Hauek dira LPPa berrikustearen helburuak:

1. Biodibertsitatea eta natura-balioak babestu eta bultzatzea, ekosistemek eta paisaiek beste eremu funtzional batzuekin duten jarraitasun ekologikoa zainduz, eta landa-eremua nahiz nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera sustatzea. Baso autoktonoa berreskuratzea, paisaia eta basoa nariatzaren duten azpiegiturak hobetzea eta lurzoru berririk kalifikatzea saihestea.



2. Etxebizitza-behar eta -eskaintzaren zein jarduera ekonomikoen arteko oreka handiagoko hiri-eredua lortzea. Horretarako, landa-inguruneari ez zaio kalterik eragin behar eta ez da lurzoru berririk kontsumitu behar, etxebizitzak birgaitu eta beren tipologia egokitu baizik, gune libreetarako eta berdegunetarako sarbidea sortuz eta garraio kolektiboko sareen multzo egokia garatuz, Bilboko erdigunearekin eta eremu funtzionaleko nahiz hartatik kanpoko gune ezberdinekin lotura hobetzeko.
3. Indarreko LPPeen planteatutako proposamenen oraingo egoerak berrikustea eta horietara egokitzea, eta arreta berezia ematea kutsatuta egon daitezkeen lurzoru estrategikoak berroneratzeari.
4. Mugikortasun-patroiak aldatzea, barneko zein kanpoko joan-etorri metropolitanoei dagokienez, intermodalitatea, garraio publikoaren eskuragarritasuna eta motordunak ez diren moduak oinarri hartuta. Trenbideengatiko hiri-oztopoak kenduz eta bide-aukerak irekiz, espazio publikoa berreskuratzeko aukerak aztertzea.
5. Ondare materialaren zein ez-materialaren eta paisaiaren ikuspegi bateratu bakarra sortzea: nortasunaren, aberastasunaren eta enpleguaren adierazpena dira. Horretarako, paisaiak eta ondare-elementuak lotu behar dira, oinezkoentzako eta txirringarientzako natura-ibilbideen bidez; hiri-habitatarekin lotuta dagoen aisialdirako gune-sistema baten esparruan, haren aisialdi-ahalmena bultzatu eta osasuna sustatzeko.
6. Hiri-bilbeekin jarraitasunik ez duten ekipamendu berriak eta erabilera masiboko aisialdi-guneak sortzea mugatzea. Edonola ere, ibilgailu pribatuaren ordeko moduez iristeko aukera egotea lortu behar da.
7. Udalez gaindiko estrategia bat ezartzea lurralde osoan, eta hura beharrezkoa den arloak adieraztea.
8. Zeharkako gaiak esplizituki integratzea proposatutako eredian: generoa, haurtzaroa, osasuna, irisgarritasuna, euskara eta klima-aldaketa.
9. LPParen berrikuspenak proposatzen dituen jarduketak lehenestea eta koordinatzea, eta eragile arduradunak hura definitzea ere bai, egikaritze aldera.
10. Lurralde-estrategia orekatua, adimentsua, barneratzailea, elkarrekin erlazionatua eta partaidetua egitea, ahalmenak eremu funtzionalaren lehiakortasun-abantaila gisa aprobeztatzeko; lurralde-euskarria kalitatezko faktore gisa errespetatzea, barne-zein kanpo-ikuspegitik.

Proposatutako jarduketak honako alderdi hauetara bideratzen dira:

- Azpiegitura berdeak: natura-ondarea babestea, lotura ekologikoa bultzatzea ibaien sarea ere kontuan hartuta, narriatutako eremuetako jarduketak lehenestea, etab.
- Landa-habitata: landa-eremu estrategikoak definitzea, landa-ingurunean instalazioak eta azpiegiturak jartzea murriztea, hiri-ortuetarako kokapen potentzialak ematea, baso-azalera berriz orekatzea eta dibertsifikatzea baso-teknika «bigunak» erabiliz, etab.
- Hiri-habitata: erabilerak batzeko jarraibideak ezartzea, jarduera ekonomikoen eskaintza orekatzea, hiri-azpiegitura berdea garatzea, lurzoruaren kontsumoa mugatzea, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berroneratzeko lehentasunezko eremuak identifikatzea, ibaiadarraren ingurunea berroneratzea, etab.
- Mugikortasuna eta logistika: mugikortasun-eredua aldatzea, motordunak ez diren moduetan eta garraio kolektibo intermodalean oinarrituta, bidegorri-sarea hedatuz.
- Ekipamenduen eta aisialdirako guneen sistema orokorra: ekipamenduen, espazio libreen, hondartzen eta natura-ibilbideen arteko lotura.
- Ondarea eta paisaia: ondare tipologia guztiei balioa ematea, zaindu beharreko nortasun-adierazpenak direnez eta balio kolektiboa dutenez; habitat naturalak suspertzea; etab.
- Baliabideen kudeaketa jasangarria: ekonomia zirkularraren kontzeptua, Euskadiko Energia Estrategian eta Klima-aldaketakoan ezarritako helburuak.
- Zeharkako alderdiak: klima-aldaketa, genero-ikuspegia, haurtzaroa, osasuna eta euskara.

## 2.- Ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia.



Ingurumen-azterlan estrategikoak barne hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Kontuan izanik eremuaren ezaugarriak eta gauzatu nahi diren jarduketak, gai hauek jasoko dira:

**A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.**

Bilbo Metropolitarraren LPPren berrikuspena justifikatzeko oinarri da 10 urte igaro direla behin betiko onartu zenetik (179/2006 Dekretua, irailaren 26koa, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala behin betiko onesten duena), eta ordutik egoera soziala eta ekonomikoa aldatu direla. Gainera, azken 10 urteetan udalaz gaindiko ingurumen- eta dokumentazio-araudiak irizpidea aldatu du lurralde-antolamenduari dagokionez; haren jasangarritasuna bultzatu du. Aurrekoarekin bat etorritik, ingurumen-azterlan estrategikoak berariaz justifikatu beharko du LPParen berrikusketak nola ezartzen dituen oro har onartu beharreko araudi, estrategia eta programa hauen ondorioz ateratzen diren ingurumen-helburuak:

- Europar Batasunaren Ingurumen arloko Zazpigarren Ekintza Programa.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumena Babestekoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa.
- EAEko Garapen Jasangarriko Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitate Estrategia 2020.
- Klima Aldaketaren EAEko Estrategia 2050.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako garapen jasangarriko printzipioak (Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du Dekretuak).
- Paisaiaren arloaren gaineko jarduketa-helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen inguruko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikuluan jasota daudenak.
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera ezarritako kalitate akustikoko helburuak (EAEko hots-kutsadurari buruzkoa da Dekretua).

Zehazki, ingurumen-helburu estrategiko, printzipio eta jasangarritasun-irizpide hauek aplikatuko dira Bilbo Metropolitarraren LPPa berrikusteko:

1. Etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe, oraingo premiak betetzeko garapen jasangarria bermatzea.
  - Lurzoruaren okupazioa moteltzea, eta horretarako lehendik artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera lehenestea, narriatutako espazioen biziberritzea eta berrerabilera bultzatzea, eta balio agrologiko eta natural handia duen lurzoru urbanizaziotik babestea.
  - Pertsonen eta salgaien mugikortasun jasangarriko hiri-ereduak bultzatzea.
  - Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabilerekin plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
  - Ingurumeneko eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz.
  - Landa-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea, nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz.
  - Lurraldeko energia, ura, hondakinak eta lurzoruen erabilera arduratsua sustatzea.
2. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz. Biodibertsitatearen galera geldiaraztea.



- Biodibertsitatea babestea, horretarako biodibertsitatearen osagaiak modu iraunkorrean erabiltzen direla zainduz, ingurumenaren baliabideen erabileratik ateratako etekinetan parte-hartze justua eta bidezkoa lortzeko.
- Kontserbazio-eskakizunak, erabilera jasangarria eta natura-ondarearen hobekuntza eta leheneratzea eta biodibertsitatea hirigintzako plangintza-politikan integratzea, ingurumena babestea hirigintza-antolamenduaren gainera lehenesteko legezko printzipioa kontuan hartuta.
- Habitatuen eta populazio biologikoen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, lurralde erresiliente eta multifuntzional baterantz aurrera egiteko.
- Ondare geologikoaren kontserbazioa indartzea, eta, horretarako, ondare hori hirigintzako plangintzan eta ingurumena prebenitzeko prozeduretan txertatzea.
- Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Saihestezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.

### 3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

- Energia berriztagarriak biodibertsitatearen kontserbazioarekin eta ur eta lurzoruen babesarekin bat egiteko moduan ezartzen direla sustatzea.
- Intermodalitatea eta berotegi-efektuko gas-isurpen gutxiagoko garraiobideak bultzatzea.
- Klima-aldaketarekiko erresilientea, konpaktua eta erabilera mistoa den hiri-egitura bultzatzea.

### 4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.

- Arrisku naturalak dituzten lurzoruen urbanizazioa geldiaraztea (uholdeak, akuiferoen ahultasuna, erosioa).
- Gainazaleko ur-masak (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko urak eta eremu babestuetakoak (bainatzeko guneak, ur-bilketen guneak, nitratoen kaltea pairatzen duten eremuak eta abar) ondo egotea lortzea.
- Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat etorritik, airearen kalitatea ziurtatzea bai kanpoan bai barnean (zarata barne), eta zarata handiekiko esposizioa duen biztanleria murrizten dela bermatzea.
- Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruen erabiltzaile potentzialen jardura indartuz.

Azaldutakoa kontuan hartuta, ingurumen-azterlan estrategikoak era espezifikoan justifikatu beharko du LPParen berrikusketak nola ezartzen dituen aurrez azaldutako ingurumen-helburuak eta nola laguntzen duen hirigintzako antolamenduak ingurumenari dakartzkion ondorio negatiboak gutxitzen.

## B. Ingurumen-ebaluazioaren esparru geografikoa

Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspenaren aplikazio-esparru geografikoa 35 udalerriz osatuta dago, zehazki, honako hauek: Abanto, Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gortiz, Larrabetzu, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Muskiz, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela, Ugao, Urduliz, Trapagaran, Zamudio, Zaratamo, Zeberio eta Zierbena. Beraz, udalerririk horien lurralde osoa hartzen du, jurisdikziopeko urak eta jabari publiko hidraulikoaren barneko urak barne.

Gutxi gorabehera, azalera 510 km<sup>2</sup> da, eta Bizkaiko eremu funtzional guztiekin egiten du muga: iparraldetik, Mungiako eremu funtzionalarekin; ekialdetik, Gernika-Markina, Durango eta Igorreko eremu funtzionalarekin; hegoaldeko, Audio eta Balmaseda-Zallako eremu funtzionalarekin; eta, mendebaldetik, Kantauri itsasoarekin. Eremu funtzional mugakideetan paisaia naturalak eta landatar bizimoduak nagusitzen badira ere, hiri- zein industria-eremu ugari ere badaude.

## C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak



Bilbo Metropolitarraren LPParen eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta.

Aipatutako lehenengo guneen artean Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (abendua 13ko 42/2007) aplikatuz eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat duten guneak daude. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legeria da. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen Legegintzako Dekretuak (apirilaren 15eko 1/2014) oinarritzko legediak babestutako naturaguneen sarean sartzen ditu biotopo babestuek eta aparteko zuhaitzak. Halaber, kategoria honetan kontuan hartu behar dira uztailearen 20ko Uren Legearen testuategina onesten duen 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan araututako ibai-erreserba naturalak.

Kategoria horretan honako gune eta elementu hauek daude:

- Gorbeia Parke Naturala.
- Biotopo babestua; 2012ko irailaren 3ko Agindua dago, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Uribe-Kosta-Butroeremuko BNAP eratzeko prozedura hasi zuena.
- Natura 2000 Sarea (Kontserbatzeko Eremu Bereziak, KEB, eta Hegaztia Babesteko Eremu Bereziak, HBEB): ES2130003 KEB Barbadun ibaiadarra, ES2110009 KEB Gorbeia, ES2130004 KEB Astondoako dunak eta ES0000490 HBEB Mundakako ibaiadarreko-Ogoño lurmuturreko itsasgunea.
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako (LAG) interes naturalistikoaren eremuak: Gortiz-Armintza, Armintza-Bakio, Zierbenako eremua, Pobeñako padurak eta La Arena hondartza.
- EAEn naturaren aldetik interesekoak diren naturaguneen katalogo irekia: Riomayor-Las Tobas-Akirtza, Ganekogorta mendia, Galea-Barrika eta Plentziako ibaia.

Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko, gune horiek fauna eta flora basatien espezieen korridore ekologikoekin eta migrazioerako, banaketa geografikorako eta elkartruke genetikorako oinarritzkoak diren edo funtsezko garrantzia duten paisaiako eta lurreko zein itsasoko elementuekin osatzen dira. Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean EAEko Igarobide Ekologikoen Sareko honako gune hauek daude:

- Espazio-guneak: Gorbeia parke naturala eta Ganekogorta mendia.
- Loturari dagokionez interes berezia duten ibai-zatiak: Riomayor, Las Tobas Muskiz eta Abanto-Zierbena udalerrien arteko mugan.
- Lotura-korridoreak: Eremu funtzionalaren hegoaldean daude, eta Gorbeia, Ganekogorta eta Armañón lotzen dute. Azken hori eremutik kanpo dago.
- Moteltze-eremuak: espazio-guneen, korridoreen eta lotura-guneen inguruan mugatzen dira, lurralde-trokelaren inpaktu negatibo posibleak gelditzeko («bazter-efektuak»). Duela gutxi argitaratu den LAGen aurrerapen-dokumentuak korridore bat proposatzen du Ganekogortako eremuaren eta Urdaibairen artean, Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionala zeharkatuko lukeena ekialdetik. Horrez gain, hegoaldetik muga egingo lukeen beste bat proposatzen du, Ganekogorta eta Gorbeia lotuko lituzkeena.

Halaber, oztopo kritikoak eta gatazka-guneak detektatu dira, korridore horien funtzionalitatea galarazi edo arriskuan jartzen dutenak. Horietako batzuk Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean daude, bi Bilbo-Gasteiz korridorean, Ugao-Miraballes eta Arrankudiaga udalerrien artean, eta beste bi Galdakaon, Usansoloren parean, eta Erletxen.

Espazio babestu eta figura espezifikoek gain, eremu funtzionalean beste zenbait gune daude, babestuta egon ez arren, aipatzekoak direnak, elementu eta kalitate natural garrantzitsuak dituztelako, eta, halaber, natura-intereseko espaziotzat jotzen direlako:



- Santa Marinako Haitzak Urdulizen
- Bolueko hezegunean isurtzen den arroaren haranaren hondoa
- Landazabal atlantikoak Ortuella-Santurtzin
- Artelatzak Arraiz mendian
- Landazabal atlantikoak Basaurin
- Ramos muinoa-Montaño mendia, Gallartako eta Las Carrerasesko hiriguneak barne.
- Etxerreko putzua eta bertako ingurunea
- Txarrotako harana eta presa
- Pagasarri, bereziki kontuan harturik Pagasarri-Bolintxuko eremua
- Ganekogorta
- Serantes-Luzuero-Balardi
- Saratxuko hariztiak

Aurrez aipatutakoez gain, ingurumen-balio nabarmenak dituzten eta katalogo eta inbentario hauetan jasotzen diren beste gune batzuk daude:

- Mehatxatutako flora edo faunako espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak, Mehatxatutako Espezieen EAeko Katalogoan jasotakoak.
- EAeko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAeko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako espazioak.
- EAeko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren eta paisaien katalogo eta gidalerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.
- EAeko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren guneak: IGL133 San Rokeko ammoniteak eta koralak, IGL093 Barrikako hareak, IGL125 Billao lurmutur multzoa, IGL026 Corte del Castillito (Azkorriaga punta), IGL091 Astondoako duna fosilak, IGL049 Gorrondatxeko eozenoa (GSSP), IGL149 Larreineta-Zugaztietako lur gaineko ustiapena, IGL148 Malaesperako lur gaineko ustiapena eta lurpeko meategia, IGL024 Armintzako Flysch Beltza, IGL059 Karst Peñas Blancasko orratzetan, IGL044 KT muga Sopelan, IGL140 barne-meategia eta korta Bodovalen, IGL132 numuliteak Punta Galea-Tunelbocan, IGL090 Barrika-La Galeako Paleorrassa, IGL035 Meñakozeko Pillow lavas, IGL096 Gorrondatxe eta Tunelbocako hondartza zementatua, IGL094 La Arenako hondartza eta dunak, IGL117 Punta Galeako tolestura sinklinala, IGL118 Barrikako, Txitarropunta-Kurtzioko tolesturak.
- EAeko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen arloko Planeko babes bereziko beste gune batzuk.
- EAeko Hezeguneen Lurraldearen arloko Planeko beste hezegune batzuk.
- EAeko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen Kudeaketarako Baterako Planeko Interes Bereziko beste Gune batzuk.
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Saretik kanpo.
- Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatutako beste gune interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak –non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitiren– argitaratzen dira.

Era berean, ingurumen-eremu garrantzitsuak dira balio agrologiko nabarmena duten lurzorua eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoetan ezarritako Eremu Babestuen Erregistroko (EBE) beste eremu batzuk, arestian aipatutakoen artean sartuta ez daudenak, baita lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren ondoriozko babes-erregimenen bat duten naturaguneak ere.

Kultura-balio handia dutenen artean kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak daude, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten eremuen artean, urak hartzeko 10 eta 100 urteko errepikatze-denbora duten eremuak daude, baita 500 urteko errepikatze-denbora dutenak eta lehentasunezko Fluxuko Eremuak, eremu higagarriak edo higatzeko arriskua





дутенак, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten lurzorua, akuiferoak kutsa ditzaketen eremuak, bideetako, trenbideetako, aireportuko zein portuetako azpiegituren zortasun akustikoko eremuak eta kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez diren eremuak ere.

Bilbo Metropolitarraren LPP berrikusteko, kontuan izan beharko dira aipatutako garrantzi desberdineko guneak, bai eta ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen duten jarduketak garatzeko horietatik eratoritzen diren baldintzatzaileak ere.

#### D. Jarduketak egiteko egokiak ez diren inguruak

Bilbo Metropolitarraren LPPk beste lurralde-eredu bat ezarri du, eremu funtzionalaren hirigintza-okupazioa arrazionalizatzeko eta landa-eremuak edo eremu naturalak leheneratzeko bideratzen dena, garatu ez diren hiri-lurzorua jakin batzuk desklasifikatu daitezkeela gaineratuta. Halaber, lurralde-eremuan azpiegitura berdea txertatzea proposatzen du, eta azpiegitura berdearen eta «azpiegitura grisa» izenekoaren arteko gatazka-guneen identifikazioa nabarmentzen du. Azpiegitura gris horietan arriskuan egon ahalko zen azpiegitura berdeen funtzionalitatea. Azterketa estrategikoak zehaztasun handiagoz aztertu beharko ditu azpiegitura bien arteko gatazkak.

Ez da etorkizuneko jarduketak onartezinak izan litezkeen eremurik detektatu, ingurumenari dagokionez, baina Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren arabera, «Parke Metropolitarrak. Uribe Kostako Itsas Parke Lineala» sortzeak Uribe-Kosta-Butroen eremuko BNAP eratzen hasteko Agindua (2012ko irailaren 3ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena) oztopatu lezake. Hortaz, ingurumen-azterlan estrategikoak horren inguruko azterketa egin beharko du.

Halaber, Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspenean emandako ingurune fisikoa antolatzeke proposamena Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan planteatutako lurralde-ereduan oinarritzen da, eta errespetatzen ditu haren berrikuspenean jasotako antolamenduko kategoriak eta baldintza eratorriak. Bada, proposamen horrek egokitu beharra dauka aurreko atalean aipatutako ingurumen-arlo garrantzitsuetara eta arlo horiek aplikazioko araudietan ezartzeko mugapenetara; eta aintzat hartu behar ditu, bereziki, espedienteen jaso diren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean eta URAREN txostenean adierazitako alderdiak.

#### E. Egindako aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Desklasifikatu beharko liratekeen ingurune edo eremu zehatzak identifikatzea proposatu da. Kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eremu jakin batzuk proposatu ditu desklasifikatzeko.
- Ingurune fisikoaren antolamendurako proposamenari dagokionez, honako gai hauek adierazi dira:
  - Babes bereziko kategoriarako: testuan zein azpiegitura berdeen barruko kartografian babes bereziko eremuak argi eta garbi identifikatzeko eskatu da, bai eta babes bereziko kategorian Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalen jasotako Batasunaren intereseko habitat guztiak gehitzeko ere. Halaber, eskatu da LPParen hezeguneen xedapenak errespetatzeko, II. taldeko hezegune guztiei dagokienez.
  - Eratorritako baldintzetarako: LPParen II. taldeko hezeguneak eratorritako baldintzetan jasotzea proposatu da, eta proposamenak «Parke Metropolitarrak. Uribe Kostako Itsas Parke Lineala» sortzeari ekar diezazkion oztopoen analisi



zehatza eskatu da, Uribe-Butroe eremuko BNAP eratzeko prozedura hasteko aginduz. Horrez gain, proposamen zehatzagoa eskatu da, udal-plangintzaren mailan, «biodibertsitatea zaintzeko intereseko eremuetarako» araudi-arabidea definitu eta xedatzearekin lotuta; baita eremu horien irismena berrikusteko ere.

- Azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatazka-eremuak zehaztasun handiagoz aztertzeko proposatu da, eremu horietarako jarduketa- edo kudeaketa-neurri posibleak zehazteko.
- Espezie inbaditzaileek jadanik kaltetutako eremuetarako prebentzio- eta kentze-neurrietan zein neurri horiek udal-mailan ezartzeko mekanismoen ezarpenean gehiago sakontzeko proposatu da.
- Beste antolamendu-tresna eta plan sektorial batzuetan ezarritako irizpideak mantentzea proposatu da.
- Hiri-ortuak jartzeko eremu potentzialen egoera zehaztasun handiagoz aztertzea proposatu da, horiekin lotuta egon daitezkeen nekazaritzako ustiategiek erasanik jasan ez dezaten.
- LPParen aurrerapenean jasotako irizpideak eta jarduketak betetzeko neurriak proposatu dira, lurrazaleko sare hidrografikoari eragitearekin lotuta.
- Sare hidrologiko osoaren grafikoak egitea iradoki da, kontuan hartuta lur azpiko zatiak edo estaldurakoak.
- Adierazienez, kontuan hartu behar dira itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko araudiak ezarritako murriztapenak, bereziki, Uribe Kosta Itsas Parke Linealean zein Nerbioi ibaiaren ingurunean.
- Uholdeen kaltea jasateko arriskua izan ditzaketen leheneratze- edo berritze-eremuak identifikatzea proposatu da.
- Sare Urdin izenekoaren barruan giza kontsumorako ur-harguneak gehitzea proposatu da, eremu babestuen erregistroan jasotakoak.
- Hiri-berroneratzeko jarduketetara egokitu aurretik, sistemaren gaitasuna hiri-lurzoruaren aurreikuspenetan lehentasunez baloratzeko beharra hornidurarekin eta saneamendurekin lotutako irizpide gisa gehitzea proposatu da.

**F. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.**

Ingurumen-azterlan estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du; hain zuzen, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren atalek honako eskema metodologikoari erantzun behar diote:

1. Egokiak diren beste plan eta programa batzuen edukia, helburuak eta erlazioak.
2. Ingurumenaren egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterlan estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabalatasun- eta zehaztasun-mailarekin:

**1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioak**

Azterlanean LPParen berrikusketaren helburu nagusien laburpen txikia jasoko da. Halaber, LPParen berrikusketaren ondorioz planteatzen diren gai berriak deskribatuko ditu zehatz-mehatz azterketak, baldin eta ingurumenaren gainean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete.

Azterketak era espezifikoan justifikatu beharko du jarduketa zehatz bakoitzerako nola hartu diren kontuan LPParen berrikusketa egitean Ebazpen honetako 2.A apartatuan



ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasangarriak. Justifikazio hori bai arauetan bai LPPan bertan ezarritako adierazle eta mugen erabilera oinarritutako da.

Bestalde, aztertu beharko dira LPParen loturak bai antolamenduko beste tresna batzuekin bai LPParekin lotura izan dezaketen lurralde-planekin eta plan sektorialekin. Gutxienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), LAGak aldatzea bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, eta LAGak berrikustea.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan kontuan hartuko dira; bereziki, babes bereziko eta ingurumen-hobekuntzako zonak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua zehaztean, kontuan hartuko dira LPS horrek ezartzen dituen gidalerroak eta araudia; bereziki balio agrologiko handiko lurzoruei eta erabilgarritasun publikoko mendiei dagokienez.
- Gune Hezeetako Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra).
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen zonei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.

LPParen helburu eta jarduketan eta eremuan eragina duten plan eta programen helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta erlazioa zehaztuko dira.

Halaber, eremuari aplikatu beharreko gainerako planei dagokienez izan daitezkeen bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrek eta sinergikoak identifikatuko dira. Hemen identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero, planaren eraginak identifikatu eta baloratzeko atalean ebaluatuko dira. Baterako helburuak lortzea izango da xedea, eta horrez gain, beste planen helburu eta jarduketa-ildoekiko gainjartze, gatazka edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan LPParen jarduketarako alternatibak ebaluatzea.

## 2. Ingurumenaren gaur egungo egoera

Azterketak ingurumenaren gaur egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta LPParen berrikuspenera egin ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita Ebazpen honetako 2.c apartatuan ingurumenaren aldetik garrantzitsu identifikatutako edozein gunerekin erlazionatutako arazoak ere.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeen definizio bat gauzatuko da horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, LPParen izaera orokorrekiko eskala proportzionatuan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleen erabilera bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren<sup>1</sup> adierazleen oinarritzko

<sup>1</sup> 2013ko Euskadiren ingurumen-profila, ingurumen-adierazle nagusiak.

[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/perfil\\_ambiental/eu\\_def/adjuntos/2013.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/perfil_ambiental/eu_def/adjuntos/2013.pdf)

panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, bai eta lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta Ebazpen honetako aurreko ataletan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan hartu beharko da gaur egungo egoeraren eta, bidezkoa izanez gero, LPParen eremuaren azalera osoari dagozkion adierazle batzuen arteko aldakuntza; hona hemen adierazle horiek:

- Hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako azaleraren ehunekoa.
- Lurzoruaren artifizializazioa: azalera artifizializatua guztizko azalerarekiko.
- Komunikazio- eta garraio-azpiegiturretara bideratutako azaleraren ehunekoa.
- Hiri-erabilerako azalera (bizitegia, industrial edo ekipamenduen), 10 eta 100 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskuko lurzoru gisa katalogatutako lurzoruan kokatzen dena.
- Habitat naturalek, erdi-naturelek eta naturalduiek hartzen duten azaleraren ehunekoa.
- Kalitatean edo kontserbazio-egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.
- Tokiko basoaren ehunekoa, guztizko baso-azalerarekin alderatuta.
- Babes bereziko kategorian sartutako azalera.
- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berdinak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izandako balizko zailtasunak justifikatuz. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterketak; hala, ingurumena zaintzeko programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuko da.

### 3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Atal honetan ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, alderdi hauek barne: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea (ondare historikoa barne), klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina (bereziki, planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia), ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia. Faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek emandako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

LPParen berrikusketaren ondoriozko gai berriei dagozkien planeamendu-ekintzak identifikatuko dira. Bereziki, arreta berezia jarriko zaie jarduketei, baldin eta, azken buruan, hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurumenearen eraldaketa nabarmenak ekar baditzakete.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da.

### 4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko puntuan identifikatutako ondorio adierazgarri bakoitzerako, ondorio horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zein garapen-tresnatan inplementatuko den zehaztuko da.



Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira. Azpiegitura berdearen eta grisaren artean identifikatutako gatazka-eremuei dagokienez, hala badagokie, galdutako lotura ekologikoa berriz sortzeko, eremu horietan egin beharreko jarduketak edo kudeaketa-neurri posibleak proposatuko dira.

Halaber, espezie inbaditzaileen inguruan, prebentzio- eta kentze-neurriak nahiz neurri horiek udal-mailan ezartzeko mekanismoak proposatuko dira.

#### 5. Alternatibak aukeratzeko prozesua

Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat txertatuko da, bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumen arlokoa eta Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspenaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituena, batez ere ingurumen-helburuekin lotuta. Azterketa horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Ebaluazioak erreferentzia-esparru gisa izango du ingurumen-alderdi garrantzitsuen balizko bilakaera, LPParen berrikusketa aplikatzen ez bada (0 alternatiba), eta sakonean aztertuko du indarrean dagoen planeamenduaren eta haren berrikusketaren artean dauden aldeak. Garrantzi berezia emango zaie LPParen berrikusketak zuzenean aplikatzen diren bestelako arauetan sartzen dituen aldaketei eta aldaketa horiek ingurumenaren ikuspuntutik dakartzaten aldaketei.

#### 6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikusketa aplikatzeak ekarriko dituen ondorioak gainbegiratzeko zer neurri aurreikusten diren deskribatuko da programa horretan. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterketan Ebazpen honetako 2.F ataleko 2. epigrafean betetzeko proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu. Era berean, kasuan-kasuan datuak zein periodikotasun eta metodologiaren bidez jasoko diren azaltzeko proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.

#### 7. Laburpen ez-teknikoa

Azterlanak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat izango du; publikoak oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu autoaskia eta azterlanarekiko independentea izan dadin.

### G. Natura 2000 Sareko guneei balizko eran eragiteari buruzko balorazioa

LPParen dokumentuak Natura 2000 sareko tokiak jasotzen ditu EAeko azpiegitura berdea osatzen duten gune babestuen artean.

Dokumentuak, halaber, jasotzen du Natura 2000 Sareko tokien erabileren irizpideak eta araubidea dagokien babes-figurek ezarritakoak izango direla.

Beraz, ondoriozta daiteke, betiere ingurune fisikoaren antolamenduaren alorrean LPParen lurralde-ereduaren gidalerroetan xedapena txertatzen den heinean, proposatutako antolamendutik eratorrita, ez zaiela afekzio nabarmenik egingo Natura 2000 Sareko tokiei, eta, beraz, ez dela beharrezkoa izango azterlanak Natura 2000 Sareko tokietan izango diren ondorioak ebaluatzeari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan aipatzen den atal espezifikoaren sartzea.



**H. Hasierako onespeneren ondoren sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesduna.**

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda osatzeko, hala xedatzen baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan. Ingurumen-organoak honako hauei egin die kontsulta:

- EUSKO JAURLARITZAKO NATURA ONDARE ETA KLIMA ALDAKETAKO ZUZENDARITZA
- EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA
- EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA
- GOBERNUAREN LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENKO ETA EUROPAR POLITIKETAKO ZUZENDARITZA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO KULTURAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENENKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO NEKAZARITZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO AZPIEGITURAKO ETA LURRALDE GARAPENERERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
- URAREN EUSKAL AGENTZIA
- KANTAURIKO UR KONFEDERAZIOA
- EUSKAL HERRIKO ITSASERTZ MUGARTEA
- IHOBE
- ABANTO ZIERBENAKO UDALA
- ALONSOTEGIKO UDALA
- ARRANKUDIAGAKO UDALA
- ARRIGORRIAGAKO UDALA
- BARAKALDOKO UDALA
- BARRIKAKO UDALA
- BASAURIKO UDALA
- BERANGOKO UDALA
- BILBOKO UDALA
- DERIOKO UDALA
- ERANDIOKO UDALA
- ETXEBARRIKO UDALA
- GALDAKAOKO UDALA
- GETXOKO UDALA
- GORLIZKO UDALA
- LARRABETZUKO UDALA
- LEIOAKO UDALA
- LEMOIZKO UDALA
- LEZAMAKO UDALA
- LOIUKO UDALA
- MUSKIZKO UDALA
- ORTUELLAKO UDALA
- PLENTZIAKO UDALA
- PORTUGALETEKO UDALA
- SANTURTZIKO UDALA
- SESTAOKO UDALA
- SONDIKAKO UDALA
- SOPELAKO UDALA
- UGAO-MIRABALLESEKO UDALA
- URDULIZKO UDALA
- TRAPAGARANGO UDALA
- ZAMUDIOKO UDALA
- ZARATAMOKO UDALA
- ZEBERIOKO UDALA
- ZIERBENAKO UDALA
- EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEA
- EGUZKI
- IRATZAR EKOLOGISTA ETA INTERNAZIONALISTA ELKARTEA



**I. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateen, iraupenaren eta epeen definizioa.**

Funtsezko organoak, edo hala badagokio sustatzaileak (aztergai dugun honetan biak bat datoz) jendurrean jarriko ditu Plan honen hasierako bertsioa eta ingurumen-azterlan estrategikoa, 45 egunez gutxienez. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikuluaen arabera, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da azterlana eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismeneko dokumentu honen erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

**J. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak**

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluaen arabera, kualifikazio profesional eta goimailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanaren egileak identifikatu behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

Dokumentazioa aurkezteko, honako jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-deklarazio estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek, koherentzia egokia errespetatu beharko dute, bai haien artean baita aurretik aurkeztutakoekin ere, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoen atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala georeferentziatua, behar duten ataletan.
5. Plano guztiak kodearekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek dagokion elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuetako atalen baten osatze edo zuzentze gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu osatzearen edo zuzentzearen ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutak edo ordezkaturak jo beharreko kapituluak, orrialdeak,



- epigrafeak, atalak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eska daiteke kontraesaneko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.
9. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaera **IKS-eem sistema** erabilia aurkeztu beharko da, aplikatu behar diren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilia, zehazki, helbide honetan: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/guia\\_iks/eu\\_def/index.shtml](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/guia_iks/eu_def/index.shtml)
10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Luzera handiagoko dokumentuak zatitu egin behar dira sisteman txertatzeko.
11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide osoa txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa programaren "Joan orrialde honetara" eremuan adierazi behar denarekin.
12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. Plano horiek kode batekin eta izenburuarekin identifikatu beharko dira; halaber, legenda bat izan beharko dute eta adierazitako datuak ongi interpretatzeko beharrezko sinbologia. Shape fitxategiak ongi manipulatu ahal izateko, ez dira 10Mb-tik gorakoak izan behar.
13. Organo sustatzaileak beti bermatu beharko du ezen, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela.

**Bigarrena.**- Ebazpen honen berri ematea Bizkaiko Foru Aldundiari.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 17a



**Ivan Pedreira Lanchas**  
Ingurumen, Lurralde Plangintza  
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria  
Director de Administración Ambiental